

EZUSTEKO OPARIA

Ezin dut lo hartu, urduri nago, egon ezinik. Pinpilipausak sentitzen ditut sabelean, gora eta behera gelditu gabe, eta ez didate uzten deskantsatzen. Pozik nago: arreba berri bat izango dut bihar! Mundiala da, ez al duzue uste! Lagun berri bat edukiko dut jolasteko, nire sekretuak partekatzeko, barrabaskeriak egiteko..., ez naiz inoiz aspertuko! Baina badituzten zenbait kezka ere; izan ere, baliteke ez izatea nik pentsatu bezalakoa.

Lagunak beti daude liskarretan gai hau dela eta: arreba, ahizpa edo anaia handiagoak dituztenak, abuso batzuk direla diote, eta eurak izurratzea beste helburutik ez dutela. Gainera, euren aurrean ez dute ezer egiterik, altuagoak eta indartusagoak baitira. Horregatik, hauek senide txikiagoa eduki nahiko lukete. Anaia, arreba edo ahizpa txikiagoa dutenek, berriz, protagonismo guztia txikiak hartzen dutela diote, haiek jasotzen dutela arreba guztia. Bestalde, euren artean liskarren bat izanez gero, beti handienarentzako dela errieta errepikatzen dute behin eta berriro. Azkenean, eztabaida hauek "hobe anai-arrebarik edukiko ez bagenu!" esaldiarekin amaiatzen dira beti. Ni, ordea, ez nago ados, beti izan naiz seme bakarra etxean, eta nahiz eta logela, jostailuak, gurasoak... partekatu behar ez izatea abantaila bat dela onartu behar dudana, askotan, aita eta ama lanpeturik daudenean, aspertu egiten naiz, eta bakarrik sentitu. Beraz, nik argi daukat arreba bat izatea gertatu zaidan gauzarik politena izango dela. Berarekin ondo moldatuko naizela iruditzen zait, azken finean, hau jarrera kontua da, eta nik inoiz ezagutu duzuen anaia arduratsua eta maitekorrena izatea proposatu diot neure buruari: ez gara inoiz haserretiko, ikusiko duzue!

Gai honi buelta batzuk emanda lasaiago sentitu nintzen, eta urduritasunak eragindako nekearen ondorioz, begiak isten joan zitzaizkidan pixkanaka, lo hartu nuen arte.

-Esnatu Manex! Hamarrak dira! Lo hartu dut!

Hitz horiek esnatu ninduten hurrengo goizean nire lozorro atseginetik. Oraindik lo altxatu nintzen eta aita ikusi nuen alde batetik bestera korrika ero moduan. Ez nuen ezer ulertzen. Bat- batean, burua itzuli, eta egutegian gaurko eguna gorri markatua ikusi nuen. Ostras! Egia zen, ia ahaztu zitzaidan!

Gaur zen eguna, gaur zen egun handia! Hotzikara batek gorputz guztia hartu zidala konturatu nintzen. Hamarrak ziren eta hiru ordu laurden barru helduko zen hegazkina! Mugitu behar nuen! Aitaren moduan, korrika hasi nintzen alde batetik bestera. Pare bat gailera hartu nituen eskuan bidetik jateko, eta ziztu bizian jantzi nintzen. Atetik irten berri ginen eta eskailerak arrapaladan jaisten ari ginen, zeraz oroitu nintzenean:

-Aita! Itxaron! Oparia ahaztu zait! Arrebarentzako oparia! Itzuli behar dugu!

Eta halaxe egin genuen. Berriro ere di-da batean igo ginen eta etxean sartu. Kaka zaharra! Ez zen inon ageri! Ez pentsa kristoren oparia zenik, marrazki bat baino ez zen, baina denbora eta gogo handia eskaini nion . Azkenean!

-Aita!, aurkitu dut, joan gaitzke!

Bost minutu behintzat galdu genituen, eta orain bai, oso justu genbiltzan denboraz. Horren desordenatua izateagatik gertatzen zait hau. Etxera itzultakoan, lehen gauza gela txukunduko nuela erabaki nuen, ikasi nuen lezioa. Baina orduan ez zegoen horretarako denborarik, ez horretarako, ezta beste ezertarako ere. Oraingo honetan igogailuan jaitsi ginen, gure zain baitzegoen. Korrika zeharkatu genituen kale guztiak, baita errepideak ere, semaforoaren koloreari jaramonik egin gabe. Auto batek baino gehiagok jo zigun bozina, atentzioa deituz.. Azkenean, aurkitu genuen autoa, inoiz baino urrutiago zegoen aparkatuta. Aitak beti berdina egiten zuen TAO ez ordaintzearen. Sartzeko ia denborarik eman gabe, aitak ibilgailua martxan jarri zuen. Hor gindoazen!

Aireportura iritsi ginen azkenean, gora begiratu nuen, eta panel handi batean 10:44 zirela irakurri ahal izan nuen, minutu bat barru iritsi behar zen Errusiatik zetorren hegazkina, eta guk oraindik ez genuen zegokion atea aurkitu. Lehen aldiz, hegazkina atzerapenarekin etor zedin desiratu nuen. Zer irudi egingo zuen bestela nire arreba kuttunak gutaz, berandu iritsiz gero? Axola ez zigula pentsatuko zuen eta gaizki sentituko litzateke! Ezin nuen onartu! Bat batean inoiz ez bezala hasi nintzen korrika aitaren atzetik, ez nekien hain azkarra izan nintkeenik. Alde guztietara begiratzen nuen, neskatxa guztiei, nire arrebaren bila. Ez nuen bere argazkirik ikusita, baina ez dakit nola, aurpegira begiratzearekin bakarrik banekien bera zen hala ez. Korrika nindoala, aitak jarraitzen ez ninduela ohartu nintzen eta atzera begiratu nuen. Han zegoen geldituta, munstro bat ikusi balu bezala.

-Zer aita? Zergatik gelditu zara, zer ikusi duzu?

Buruaz keinu bat eginez, sorbaldaraino iritsiko zitzaidan neska txiki bat seinalatu zidan. Zuri-zuria zuen azala, Edurne-zurirena bezalakoxea. Eta masaila-gorri-gorriak. Segituan konturatu nintzen gertatzen zenaz, huraxe zen nire arreba berria! Pozaren pozez joan eta besarkada handi bat eman nion. Bat batean “kaixo!” isil bat entzun nuen, ezin zitekeen izan, nolatan? Ez euskaraz ezta gaztelaniaz ere jakingo ez zuela esan zidan aitak, eta jada bidaian hitz bat ikasi zuen!, bai arreba azkarra nuela. Bat-batean ,ordea, gora begiratu nuen, eta ama ikusi nuen. Ni bai ni inozoa, noski! Nor izango zen bestela! Emozioak itsutu egin ninduen eta ez nuen ikusi. Besarkada handi bat eman nion amari ere.

- Tanya deitzen da, Tanya Garmendia orain.

Irribarre atsegin bat eskaini nion Tanyari eta berak itzuli egin zidan. Orduantxe jakin nuen nik imaginatu bezalakoxea izango zela.

-Kaixo Tanya, ni Manex.
Eta marrazkia eman nion.

.....

.-.

Beste edozein egunetan bezala, zortzietan esnatu gintuzten, eta denak izugarritzko lo aupegiarekin gosaltzera jaitsi ginen. Betiko lekuan eseri nintzen, Natasharen ondoan, mahai luzearen amaieran. Natasha, nire lagunik onena zen, hona iritsi nintzenetik ezagutzen nuen, eta hasieratik, nire ondoan egon izan da, beti laguntzeko prest.

Gosaldu ondoren, ohitura jarraituz, logelara itzuli ginen eta handik bost minutura ohe guztiak eginak gelditu ziren. Jarraian, uniforme urdin karratuduna jantzi, eta areto nagusira jaitsi ginen; eguneko zati aspergarriena tokatzen zen: klaseak.

Asteartea zen, beraz, Yura jaunarekin hasi genuen eguna. Gizon dotorea zen, altua eta argala. Hala ere, bere ezaugarriak bereizgarriena, bibote luze eta kiribila zen, aurpegia alderik alde zeharkatzen ziona. Literaturako irakaslea zen, despistatu samarra baina jatorra. Ez zuen inoiz erlojurik erabiltzen, hobe esanda, ez zuen ordutegirik, gustuko zerbait egiten ari zenean behintzat. Eta zerbait gustuko bazuen, hori literatura zen dudarik gabe, ezer baino gehiago maite zuen. Mundu horretan bizi zen murgilduta, egun osoa liburu artean, eta mundu errealekin zuen kontaktu bakarra geu ginela esatera ausartuko nintzateke.

Horrela, liburu artean igaro genuen lehen ordua, eta inoiz amaituko ez zela uste nuenean, Sergey jauna sartu zen gelan.

-Hara! Jada igaro da ordu bete osoa! Pena, ziztu bizian igaro zait, hain ondo pasa dugu eta Alexander Pushkinen eleberrietan murgilduta! Beste egun batean jarraituko dugu neskok!

Denok aupegian irribarre bat marraztua eta "Baii!" faltsu batekin agurtu genuen Yura jauna, estimatzen baikenuen jartzen zuen gogoia eta ilusioa geuregan, baina zenbaitetan, astunegiak egiten ziren bere klaseak, ahaztu egiten zitzaion geu ez ginela bera bezain literatura zaleak.

Literaturako klasea amaituta, matematikakoa hasten zen, Sergey jaunarekin, hura bai hura infernua! Sergey jauna, Yuraren guztiz kontrakoa zen; gizon lodikotea, baxua, eta indartsua. Oso zorrotza zen; ordutegiarekin batez ere: berarentzat denbora sakratua zen, altxor bat, eta ez zegoen ezta segundu bat

galtzerik. Horregatik, sekulako sermoiak jasotzen genituen leihotik begira harrapatzen bagintuen distraituta edo geure artean hitz egiten: gorri-gorri jartzen zen, tomate baten pareko eta edozein momentutan eztanda egingo zuela zirudien. Gauzak horrela izanik, bere klaseetan adi-adi egoten ginen denok, ia arnas hartzera ausartu barik, eta lasaitu ederra hartzen genuen gelatik irteten zenean.

Beraz, beste egunetan bezala, ziztu bizian sartu zen, eta ahalik eta azkarren, liburua ireki, eta arbelean marrazten hasi zen. Zenbakiak eta zenbakiak idazteari ekin zion, espazio gehiagorik gelditu ez zitzaion arte. Ni ordea, egia esan behar badut, ez nengoen oso adi, berari begira bai, baina burua nire pentsamenduetan murgilduta nuen. Horregatik, sekulako sustoa hartu nuen “errepika dezakezu oraintxe azaldu berri dudana, Tanya anderea?” Sergey jaunaren ahotik irteten entzun nuenean. Ez nekiela zer erantzun gelditu nintzen, izu aurpegiak, baina nire zorteko, errieta botatzen hasi behar zitzaidan une berean, atea zabaldu zen, justu-justu libratu nintzen!

Atearen atzean bi pertsona agertu ziren: gizon bat, eta emakume bat. Gizona ondotoxo ezagutzen nuen, gure zuzendari prepotente madarikatua zen, emakumea ,ordea, ez nuen ezta bistaz ere ezagutzen. Ez zen hemengoa, oso morena zen, altua eta argala; atsegina zirudien, eta pixka bat lotsatuta zegoela nabari zen. Orduan, zuzendaria hasi zen hizketan:

-Kaixo! Hau, Amaia duzue, Europa mendebaldetik etorri da, alaba baten bila.

Hitz horiek ahoskatzen amaitu bezain pronto hasi zen zalaparta aretoan. Denok geunden urduri, denok amestu izan genuen noizbait benetako familia bat edukitzearekin, eta denok geunden aukeratuak izateko irrikitan.

-Nahikoa! Isiltasuna mesedez, anderea izutuko duzue! - oihu egin zuen Sergey jaunak bere onetik irtenda.

Denok obeditu genuen, eta segundo bat baino gutxiagoan, berriro ere isiltasuna zen nagusi. Orduan, zuzendariak, ulertu ezin izan nuen hizkuntza batean zuzendu zitzaion Amaiari, eta honek banan-banan begiratu gintuen, zalantzati, eta aldi berean erruki aurpegiarekin; zama handia zuen gainean, bat bakarra hautatu behar zuen eta!

Denok gure irribarre zintzoena eskaini genion, adi bere keinu eta mugimendu guztiak aztertuz. Amaiak banan-banan begiratu gintuen, eta niregana iristean, begirada berezi bat eskaini zidala iruditu zitzaidan, gustatu izan banitzaio bezala. Nire irudipena izango zen segur aski, baina bat-batean hotzikara batek gorputz guztia zeharkatu zidala sentitu nuen, eta besoak dar-darka nituela konturatu nintzen: hura tentsioa nuena! Ez nion aukera honi ihes egiten utzi nahi, eta aurpegia alderik alde gurutzatzen zidan irribarre batekin itzuli nion begirada, edo ustezko begirada behintzat.

Zuzendariak berriro hitz egin zuen arteko segundoak, ordu iruditu zitzaizkigun gela horretan geunden guztioi; inoiz ez nuen pentsatu hainbeste desiratuko nuenik aho horrek nire izena ahoskatzea, normalean, ez baitzen ezer onik iriteten bertatik; baina egun hori ezberdina zen, bihotzak esaten zidan gauzak aldatuko zirela, bizitza berri bat hasiko nuela, eta nola hobeto benetako familia batean baino?! Horregatik, sekulako saltoa eman nuen Amaiak seinalatu ninduenean, eta zuzendari jaunak hurrengo hitzak esan zituenean: "Sentitzen dut gainontzekoengatik, baina aukeratua Tanya izan da; etor zaitez". Ezustean ohi ozen bat bota nuen, eta korrika hurbildu nintzen, azkarregi aukeran, izaturik begiratu ninduela iruditu baitzitzaidan. Amaia besarkatzeko tentazioa izan nuen, eskerrak emateko eta aukeraketaz damutuko ez zela esateko, baina, gero hobeto pentsatu nuen, ez nuen beldurtzerik nahi.

Horrela, gelatik irten ginen, baina lehenik atzera begiratu nuen eta bat-batean ordura arte esperimentatu ez nuen sentimendu batek tripak nahastu zizkidan. Atzera begiratu eta gainontzeko neskak begira nituela ohartu nintzen, denak inbidiaz begiratzen ninduten, triste. Niri ere tristura hori kutsatu zidaten, eta harekin batera beldurra, izua. Nire familia bakarra izan ziren hogeit hamar neska horiek, nire adiskide bakarrak, eta ezin nituen horrela utzi. Orduan, Natasha-taz oroitu nintzen eta burua okertu nuen bera ikusi ahal izateko. Irribarre zabal bat zuen marraztua aurpegian, "ondo izan!" atsegin bat transmititzen zidana, baina aurpegia zeharkatzen zion malko batek salatu zuen bere benetako tristura; lagunik onena ondotik kendu behar zioten, eta hala ere poztu egin behar zen beregatik! Bat-batean, nik ere masaila bustia sentitu nuen, eta eskua pasa nuen lehertzeko, orduantxe ulertu nuen zenbat maite nituen denak, den-denak, eta zenbat zor nien, nahiz eta batzuekin askotan muturtuta egon. Esku bat sentitu nuen sorbaldan, esku lasaigarri bat, kontsolatu ninduena eta nire aurpegian irribarre erdi bat loratzea lortu zuen esku bat. Amaia zen, bere begi handiez begiratzen ninduen errukiturik, ulertzen ninduela transmitituz, eta honek berarekiko hurbil sentitzea eragin zidan.

.....

Azkenean, hegazkinak lur hartu, eta jaitsi ahal izan ginen. Bidaia izugarri luzea eta astuna izan zen, baina hala ere, oraindik kanpoan ez zegoen ilun, denbora gelditu zela zirudien. Nekatuta eta zorabiatuta nengoen, ez nengoen ohituta, lehenengo aldia zen eta hegan egiten nuela. Gainera, denbora osoa isilik joan nintzen, ez bainuen ulertzen Amaiak esaten zidana, nahiz eta asko ahalegindu keinu bidez adierazten; gehienez, irribarre lotsati bat eskaintzen nion.

Jende asko zegoen aireportuan, denak alde batetik bestera presaz korrika. Amaiak eskua eman zidan, ni galtzeko beldurra izango zuen, eta jendetza horren erdian sartu ginen. Zuzendariak esandako hitzak gogoratu nituen orduan: "anaia zaharragoa izango duzu etxean" Beti amestu izan dut ahizpa bat edukitzea, baina inoiz ez anaia bat; ez dut ezagutzen nire adineko mutilik, umezurztegian neskak bakarrik baikeunden, eta ilusionatuta banengoen ere, beldur pixka bat nuen: eta zakar hutsa bazen?, berekoia agian?, edo onartuko ez banindu?, ez bazuen familian beste kide bat nahi?. Horrela, nire pentsamenduetan murgildurik nengoen bitartean, ikusten nituen mutil guztiei begiratzen nien, banan-banan. Bat-batean, gizon altu eta argal baten ondoan, mutiko bat ikusi nuen, korrika, zerbaiten bila egongo balitz bezala, alde guztietara begiratzen zuen eta. Orduan jakin nuen bera zela. Ez zen oso altua, baina buru bat behintzat ateratzen zidan. Ilea marroia zuen, aitaren antzera, eta aurpegi biribila.

Hala ere, atentzioa gehien deitu zidan ezaugarria, begi handi eta distiratsuak ziren, aurreko egunean, Amaia gela sartu zenean bezalakoxe begirada urduri eta gogotsua transmititzen zutenak. Eskuan, orri bat zuen ondo eutsita, ihes egin ez ziezaion. Derrepentean, geure aurrean gelditu ziren, bazirudien aurkitu zutela bila zebiltzan gauza. Gizona geldik gelditu zen, gugandik pare bat metrotara: mutu, hatz bakarra mugitu gabe, umea berriz, niregana hurbildu zen eta besarkada goxo bat eman eta irribarre egin zidan, nik irribarrea itzuli nion. Orduan, Amaiak hitz egin zuen, ordura arte isilik egon zen eta ez nintzen ia gogoratzen alboan nuela. Ez nuen ulertu esan ziona, baina nire izena entzun ahal izan nuen. Nire anaia, niregana zuzendu zen:

-Kaixo Tanya, ni Manex.-esan, eta eskuan zuen orria eman zidan.

Marraski bat zen, eta lau pertsona agertzen ziren bertan, etxe txiki baten ondoan. Momentu horretan jakin nuen gauzak ondo joango zirela hemendik aurrera, hortxe hasten zen abentura eta erronka berria, eta prest ikusi nuen lehenengoz neure burua edozeri aurre egiteko, Manexen laguntzaz gainera.

Tanya